

EBAKUNTZA- GELARA JOAN BEHAR DUZUNERAKO

ERCILLA
KLINIKA



Dokumentu honek ebakuntza-gelan ahalik eta bizipen erosoena izaten lagunduko dizu.

Prozesu osoa nolakoa izango den azalduko dizugu; hala, urratsak aldeztatik azalduko dituzu, eta horietan aurrera egiten lagunduko dizu.

Etorri aurretik, gogoratu:

- Jarraitu **anestesia-taldeak** eta **Bitartekotzarako Osasun Unitateak** emandako **jarraibideei**.
- Patologia kronikoren bat tratatzeko medikazioa hartzen baduzu, gogoratu Osakidetza Tratamendu Aktiboaren orria ekarri behar duzula.

Bloke kirurgikora sartzea

Zure ohean edo gurpil-aulkian ekarriko zaituzte **bloke kirurgikoraino**.

Zure segurtasunagatik, blokean sartu aurretik, erizaintzako langile batek harrera egingo dizu, eta galdera batzuk egingo dizkizu (datu pertsonalak, alergiak, baraurik zauden, medikazioa...), bi aldeek egiazta dezaten zure interbentzioaren datuak zuzenak direla.

Dena ondo badago, adieraziko dizugu nola jarri behar duzun ebakuntza-gelako esku-ohera **aldatzeko**. Jarriko dizuten **anestesia-motaren arabera**, bi toki hauetako batera joango zara: **ebakuntza aurreko eremura** (nerbio-blokeo periferikoa edo anestesia lokala) edo zuzenean **ebakuntza-gelara** (anestesia intradurala edo orokorra).

Ebakuntza-gelan

Kamisoia kenduko dizugu, eta behar adina estalkirekin tapatuko zaitugu, **hotzik izan ez dezazun**.

Anestesia-mota bakoitzerako behar den **medikazioa** emango dizugu, baita erlaxatzen laguntzekoa ere.

Pegatina batzuk eta askotariko **kableak** jarriko dizkizugu, zure bizi-konstanteak zaintzeko.

Egingo dizuten kirurgia-motaren arabera, teknika anestesiakoa desberdina izango da. Ebakuntza-eremuan ziztada bat edo batzuk emango dizkizugu, bizkarrean ziztada bat emango dizugu edo medikazioa jarriko dizugu serumaren bidez.

Beso bat lokartu behar badizugu, mahai bat jarriko dugu gorputz-adarra eusteko eta teknika anestesiakoa errazteko, eta ekografo baten laguntza ere izango dugu.



Gerritik behera lokartu behar badizugu (**anestesia intradurala**), alde batera begira edo eserita jarriko zaitugu, bizkarrezur lunbarrean anestesia errazago emateko.



Bi kasuetan, **behar bezala jartzen lagunduko dizugu**.

Medikazioa emango dizugu **erlaxatzen** laguntzeko. Saiatu ez mugitzen, batez ere ziztada nabaritzen duzunean.

Ebakuntza hasi aurretik, baliteke guk zu hainbat aldiz mugitu behar izatea, **posizio egokian** jartzeko.

Urrats guztiak azalduko dizkizugu, eta une oro **lagunduko dizugu**.

Operazioak iraun bitartean etengabe **zainduko zaitugu**, eta lasai eta eroso egon zaitezten arduratuko gara.

Anestesia orokorra ematen badizugu, ebakuntzaren ondoren **Esnatzeko Gelara** eramango zaitugu.

Prozesu kirurgikoa amaitu ondoren zure gelara eramango zaitugu, eta talde medikoak ebakuntzari buruzko informazioa emango dizu.

ABU* (Esnatzeko Gela)

Zure ohera aldatuko zaitugu, eta eroso jartzen lagunduko dizugu.

Zure laguntzaileei jakinaraziko diegu ebakuntza amaitu dela eta gela honetan egongo zarela tarte batez.

Zure bizi-konstanteak kontrolatuko ditugu, eta, behar izanez gero, mina kontrolatzeko medikazioa emango dizugu.

Anestesiaren eragina desagertu dela ikusten dugunean, **zure gelara bidaliko zaitugu**.

*Anestesia ondoko Bizkortze Unitatea





mutualia
